

EAEko Sektore Publikoaren fakturazio elektronikoaren zerbitzua

Web Zerbitzuen API aren definizioa

ERP interfazea

Aurkibidea

Contenido

1	SARRERA	9
2	IRISMENA	9
3	WEB-ZERBITZUEI BURUZKO GOGOETA OROKORRAK	10
3.1	WEB-ZERBITZUEN DEFINIZIOA	10
3.1.1	WSDL	10
4	WEB-ZERBITZUEKIN ELKARRERAGITEA	10
4.1	AUTENTIFIKAZIOA ETA ATZIPEN-KONTROLA	11
4.2	FAKTUREN IDENTIFIKAZIOA	13
4.3	WEB-ZERBITZUEK ITZULTZEN DITUZTEN OBJEKTUAK	14
4.3.1	eFacturaWS - java zerbitzuak itzultzen dituen objektuak	15
4.3.2	eFacturaWSNet - <XML>zerbitzuak itzultzen dituen objektuak	15
5	EFACTURAWS - JAVA WEB-ZERBITZUA	16
5.1.1	Deskribapena	16
5.1.2	Zehaztutako metodoak	16
5.2	LOGIN	16
5.2.1	Deskribapena	16
5.2.2	Sarrera-parametroak	17
5.2.3	Irteera-parametroak	17
5.2.4	Amaiera-kode posibleak	17
5.2.5	Liburutegiaren zehaztapena	17
5.3	LOGOUT	18
5.3.1	Deskribapena	18
5.3.2	Sarrera-parametroak	18
5.3.3	Irteera-parametroak	18
5.3.4	Amaiera-kode posibleak	18
5.3.5	Liburutegiaren zehaztapena	18
5.4	SENDINVOICES	19
5.4.1	Deskribapena	19
5.4.2	Sarrera-parametroak	19
5.4.3	Irteera-parametroak	20
5.4.4	Amaiera-kode posibleak	20
5.5	GETINVOICESDATA	21
5.5.1	Deskribapena	21
5.5.2	Sarrera-parametroak	21
5.5.3	Irteera-parametroak	21
5.5.4	Amaiera-kode posibleak	21
5.6	ADDATTACHMENT	22
5.6.1	Deskribapena	22
5.6.2	Sarrera-parametroak	22
5.6.3	Irteera-parametroak	22
5.6.4	Amaiera-kode posibleak	23
5.7	LISTATTACHMENTS	23
5.7.1	Deskribapena	23

5.7.2	Sarrera-parametroak	23
5.7.3	Irteera-parametroak	24
5.7.4	Amaiera-kode posibleak	24
5.8	DOWNLOADATTACHMENT	24
5.8.1	Deskribapena	24
5.8.2	Sarrera-parametroak	24
5.8.3	Irteera-parametroak	25
5.8.4	Amaiera-kode posibleak	25
5.9	SETCOMMENTS	25
5.9.1	Deskribapena	25
5.9.2	Sarrera-parametroak	25
5.9.3	Irteera-parametroak	26
5.9.4	Amaiera-kode posibleak	26
5.10	SETMETADATA	27
5.10.1	Deskribapena.....	27
5.10.2	Sarrera-parametroak.....	27
5.10.3	Irteera-parametroak.....	27
5.10.4	Amaiera-kode posibleak.....	28
5.11	GETMETADATA	28
5.11.1	Deskribapena.....	28
5.11.2	Sarrera-parametroak.....	28
5.11.3	Irteera-parametroak.....	29
5.11.4	Amaiera-kode posibleak.....	29
5.12	GETRECEIVEDINVOICES	29
5.12.1	Deskribapena.....	29
5.12.2	Sarrera-parametroak.....	29
5.12.3	Irteera-parametroak.....	30
5.12.4	Amaiera-kode posibleak.....	30
5.13	GETSENTINVOICES.....	31
5.13.1	Sarrera-parametroak.....	31
5.13.2	Irteera-parametroak.....	32
5.13.3	Amaiera-kode posibleak.....	32
5.14	GETINVOICESDATASTATUS	32
5.14.1	Deskribapena.....	32
5.14.2	Sarrera-parametroak.....	32
5.14.3	Irteera-parametroak.....	33
5.14.4	Amaiera-kode posibleak.....	33
5.15	SETINVOICESDATASTATUS	33
5.15.1	Deskribapena.....	33
5.15.2	Sarrera-parametroak.....	33
5.15.3	Irteera-parametroak.....	34
5.15.4	Amaiera-kode posibleak.....	34
5.15.5	setInvoicesStatus zerbitzuan baimendutako egoerak.....	34
5.16	REJECTINVOICES	35
5.16.1	Deskribapena.....	35
5.16.2	Sarrera-parametroak.....	35
5.16.3	Irteera-parametroak.....	36
5.16.4	Amaiera-kode posibleak.....	36
5.17	GETINVOICES	36
5.17.1	Deskribapena.....	36
5.17.2	Sarrera-parametroak.....	36
5.17.3	Irteera-parametroak.....	37
5.17.4	Amaiera-kode posibleak.....	37

5.18	SENDINVOICESIGN	38
5.18.1	<i>Deskribapena</i>	38
5.18.2	<i>Sarrera-parametroak</i>	38
5.18.3	<i>Irteera-parametroak</i>	39
5.18.4	<i>Amaiera-kode posibleak</i>	39
6	EFACTURAWSNET - <XML> WEB-ZERBITZUA	40
1.1	LOGIN	43
1.1.1	<i>Deskribapena</i>	43
1.1.2	<i>Sarrera-parametroak</i>	43
1.1.3	<i>Irteera-parametroak</i>	44
1.1.4	<i>Amaiera-kode posibleak</i>	45
1.2	LOGOUT	46
1.2.1	<i>Deskribapena</i>	46
1.2.2	<i>Sarrera-parametroak</i>	46
1.2.3	<i>Irteera-parametroak</i>	46
1.2.4	<i>Amaiera-kode posibleak</i>	46
1.3	SENDINVOICESBASE64	47
1.3.1	<i>Deskribapena</i>	47
1.3.2	<i>Sarrera-parametroak</i>	47
1.3.3	<i>Irteera-parametroak</i>	48
1.3.4	<i>Amaiera-kode posibleak</i>	49
1.4	GETINVOICESDATABASE64.....	50
1.4.1	<i>Deskribapena</i>	50
1.4.2	<i>Sarrera-parametroak</i>	50
1.4.3	<i>Irteera-parametroak</i>	51
1.4.4	<i>Amaiera-kode posibleak</i>	52
1.5	ADDATTACHMENTBASE64	53
1.5.1	<i>Deskribapena</i>	53
1.5.2	<i>Sarrera-parametroak</i>	53
1.5.3	<i>Irteera-parametroak</i>	54
1.5.4	<i>Amaiera-kode posibleak</i>	55
1.6	LISTATTACHMENTS.....	55
1.6.1	<i>Deskribapena</i>	55
1.6.2	<i>Sarrera-parametroak</i>	55
1.6.3	<i>Irteera-parametroak</i>	56
1.6.4	<i>Amaiera-kode posibleak</i>	57
1.7	DOWNLOADATTACHMENTBASE64	58
1.7.1	<i>Deskribapena</i>	58
1.7.2	<i>Sarrera-parametroak</i>	58
1.7.3	<i>Irteera-parametroak</i>	59
1.7.4	<i>Amaiera-kode posibleak</i>	60
1.8	SETCOMMENTS	60
1.8.1	<i>Deskribapena</i>	60
1.8.2	<i>Sarrera-parametroak</i>	60
1.8.3	<i>Irteera-parametroak</i>	62
1.8.4	<i>Amaiera-kode posibleak</i>	63
1.9	SETMETADATA	63
1.9.1	<i>Deskribapena</i>	63
1.9.2	<i>Sarrera-parametroak</i>	63
1.9.3	<i>Irteera-parametroak</i>	65
1.9.4	<i>Amaiera-kode posibleak</i>	66
1.10	GETMETADATA.....	66

1.10.1	Deskribapena.....	66
1.10.2	Sarrera-parametroak.....	66
1.10.3	Irteera-parametroak.....	67
1.10.4	Amaiera-kode posibleak.....	68
1.11	REJECTINVOICES	69
1.11.1	Deskribapena.....	69
1.11.2	Sarrera-parametroak.....	69
1.11.3	Irteera-parametroak.....	70
1.11.4	Amaiera-kode posibleak.....	71
1.12	GETINVOICESDATASTATUS	72
1.12.1	Deskribapena.....	72
1.12.2	Sarrera-parametroak.....	72
1.12.3	Irteera-parametroak.....	73
1.12.4	Amaiera-kode posibleak.....	74
1.13	SETINVOICESDATASTATUS	75
1.13.1	Deskribapena.....	75
1.13.2	Sarrera-parametroak.....	75
1.13.3	Irteera-parametroak.....	76
1.13.4	Amaiera-kode posibleak.....	77
1.14	GETINVOICESBASE64	78
1.14.1	Deskribapena.....	78
1.14.2	Sarrera-parametroak.....	78
1.14.3	Irteera-parametroak.....	80
1.14.4	Amaiera-kode posibleak.....	81
1.15	GETSENTINVOICESBASE64	82
1.15.1	Deskribapena.....	82
1.15.2	Sarrera-parametroak.....	82
1.15.3	Irteera-parametroak.....	83
1.15.4	Amaiera-kode posibleak.....	85
1.16	GETRECEIVEDINVOICESBASE64	85
1.16.1	Deskribapena.....	85
1.16.2	Sarrera-parametroak.....	86
1.16.3	Irteera-parametroak.....	87
1.16.4	Amaiera-kode posibleak.....	88
A ERANSKINA		90
CONSTANTE TYPEID		90
URL 90		

1 Sarrera

Dokumentu hau plataforma ustiatzen eta erabiltzen duten kanpo-sistemen garapenaz edota mantentze-lanaz arduratzen diren langile teknikoentzat da bereziki; izan ere, sistemari buruzko informazio xehatua eta teknikoa du.

Labur-labur esanda, eFakturaren sistemaren arkitekturak bi modulu ditu:

- **Web-modulua:** Web-aplikazioa, plataformaren bezeroei zein kanpoko bezeroei plataformaren funtzionalitateak erabiltzeko aukera ematen diena.
- **Modulu zentrala:** Negozioaren logika osoa egiten du, bai jasotako dokumentuak baliozkotzeko, bai fakturak emateko edo dokumentuak zaintzeko. Bi modulu ditu:
 - **Nukleoa:** Modulu horri frontend esaten zitzaien lehen, eta eFaktura Sistemaren funtzionalitate gehienak ematen ditu. Modulu horretan zehaztutako web-zerbitzuak erakunde sustatzaileetan erabilgarri egongo diren frontaletan.
 - **EAM (Eragiketa Asinkronen Modulua):** Modulu horri backend esaten zitzaien lehen, eta sistemak behar bezala funtzionatzeko beharrezko atazak exekutatzeko dituzten prozesu asinkronoak ditu. Hauek dira ataza horiek, nagusiki: fakturak igortzea eta sistemaren erabiltzaileei ekitaldien berri ematea.

Erakunde sustatzaileek fakturazio elektronikoaren zerbitzu hau beren bezeroei (atxikitako erakundeak deritze) eskaintzen diete, sistema zentralarekin web-zerbitzuen bidez konektatutako web-aplikazioen edo ERP aplikazioen bidez.

Horretarako, eFaktura Sistemak aplikazio bakoitzak ustiatu beharreko web-zerbitzuak ditu API bat ematen du:

- **WS-API ERP:** ERP aplikazioek –webekoek edo mahaigainekoak– ustiatzeko diseinatutako APIa, atxikitako erakundeari ERP gisa ematen dioten funtzionaltasuna eta plataformak eskaintzen duen fakturazio elektronikoa konektatzeko.

Dokumentu honetan, xehe-xehe azaltzen dira WS-API ERPen metodoak.

2 Irismena

Dokumentu honek zehatz-mehatz azaltzen ditu web-zerbitzuek ERPetarako ematen dituen metodoak; eskaintzen diren eragiketak, sarrera- eta irteera-parametroak, eta erabiltzeko moduak deskribatzen ditu.

Lehenengo eta behin, web-zerbitzuen kontzeptu garrantzitsuenei buruzko sarrera txiki bat dago. Ondoren, ERPak eta haien eragiketak lotzeko erabiltzen diren eFakturako web-zerbitzuak deskribatzen dira. Eragiketa horietako bakoitzaren sarrera- eta irteera-parametroak azalduko dira, eta haien funtzionamendua labur-labur deskribatuko. Irteera-parametroak Java objektuei dagokie (objektu horiek dagokien Javadoc dokumentuan daude).

Dokumentu honetan, ERP interfazea eta Java liburutegirako metodoak deskribatzen dira.

3 Web-zerbitzuei buruzko gogoeta orokorrak

Kapitulu honetan, eFaktura Sistemaren osagai nagusia osatzen duten ERP interfazearen web-zerbitzuak xehetasunez deskribatzen dira.

3.1 Web-zerbitzuen definizioa

Web-zerbitzuak softwareko osagaiak dira, eta ezaugarri hauek dituzte:

- [SOAP](#) (Simple Object Access Protocol) interfazearen bidez dira eskuragarriak.
- Haien interfazea [WSDL](#) (Web Service Description Language) dokumentu batean deskribatzen da.

XML mezularitzako protokolo bat da SOAP, eta web-zerbitzuen oinarria da. Mekanismo erraz eta tinko baten bidez, SOAPek aukera ematen du aplikazio batek XML mezuak bidaltzeko beste aplikazio bati. SOAP mezuak SOAP igorleek SOAP hartzaileei bidaltzen dizkieten mezuak dira, eta edozein aplikaziok har dezake parte truke horretan, igorle zein hartzaile gisa. Azpiko garraio-protokolotik guztiz bereizita dagoen protokolo bat da SOAP; hori dela eta, SOAP mezuak HTTPan, JMSan edo posta elektronikoko garraio-protokoloetan bidal daitezke. Egun, HTTP protokoloa da eFaktura Sistemari erabil daitekeen protokolo bakarra.

WSDL, berriz, XML dokumentu bat da, eta web-zerbitzu bat deskribatzen duten definizio-multzo bat du. Web-zerbitzu batean sartzeko eta hura erabiltzeko beharrezko informazio guztia ematen du. WSDL dokumentu batek hau azaltzen du: web-zerbitzuak zer egiten duen, nola komunikatzen den, eta non kokatzen den. WSDL dokumentua hedaketa-unean erabiltzen dugu, gure zerbitzu-interfazeak sortzeko.


3.1.1 WSDL

WSDLak (Web Services Description Language, Web Zerbitzuen Deskribapen Lengoia) web-zerbitzuen portaera deskribatu eta haiekin nola elkarreragin azaltzen du. XML formatuko fitxategi bat da web-zerbitzu bakoitzerako.

4 Web-zerbitzuekin elkarreragitea

Orain, eFaktura Sistemako web-zerbitzuekin elkarreragina nola egiten den zehaztuko dugu. Bezero-liburutegi bat dago (Java), deiaren jatorria den ERPa eta web-zerbitzuak lotzen dituena. Liburutegi horrek metodo bat du eskaintzen den zerbitzu bakoitzerako: *login*, *logout*... Bezeroaren metodo horietako bakoitzak dei bat egiten dio web-zerbitzuaren eragiketari, SOAP eskaera baten bidez eta emandako parametroekin, eta erantzuna objektu gisa itzultzen du.

Grafiko honetan, web-zerbitzu berrien eta bezero-osagaien arteko elkarreragina ageri da, bezero-osagai horiekiko integrazioa ahalbidetzeko emango dena.



Bezero-liburutegiak batera, katalogatutako errore-kode guztiak eta web-zerbitzuen zenbait parametroren balio onargarriak dituen objektu bat ere ematen da. Zerbitzuari zuzenean SOAPen bidez –alegia, bezero-liburutegiak erabili gabe– deitzen dioten aplikazioei dagokienez, beharrezko dokumentazioa emango da.


4.1 Autentifikazioa eta atzipen-kontrola

Eskaintako zerbitzuetan autentifikatzeko, **saio-txartel** bat erabiliko da. Txartel hori **login**-zerbitzu baten bidez lortuko da, eta *eFacturaWS* edo *eFacturaXMLWS* zerbitzuen bidez eskaintzen diren gainerako metodoei hurrengo eskaerak egiteko erabili beharko da.

Txartelaren bitartez, zerbitzuak une oro jakingo du zer erabiltzaile egiten ari den eskaera. Erabiltzaileak behar adina aldiz erabil dezake txartela, zerbitzariak ezarritako *timeout* aldian zehar. Saioa amaitu dugula uste dugunean, **logout** bat egin beharko dugu, txartela baliogabetzen dela ziurtatzeko.


Ematen diren gainerako zerbitzu guztietan, *login* metodoaren bidez lortutako txartelarekin batera, testu-kate motako parametro bat sartzen da; horri esker, erabiltzailea autentifikatzen da, eta erabiltzaileak saioari euts diezairoke. Lehenago azaldu dugunez, saio-txartela baliogabetu beharra dago, eta horretarako, saioa amaitzean, *logout* zerbitzuari egin behar zaio dei. Saio-txartel baliogabetu gabe, ez da eskaerarik zerbitzatu.

Jarraian, segida-diagrama batean, autentifikazio-prozesua deskribatzen da, bai eta prozesu horren bidez lortzen den saio-txartelaren erabilera ere.



Baldin eta erabiltzileak OTP aukeran true konfiguratzen badu (lehenetsitako aukera), *login* metodoak emandako lehen **giltza** baliogabetu eta hurrengo deian erabili beharreko giltza emango du (*One-time-password* mekanismoa); horrela konfiguratuta ez badauka, berriz, giltza ez da baliogabetuko. Lehen giltza lortzeko, zerbitzuaren alta egin behar da, dagokion erakunde sustatzailearen webgunean. Giltza horrek ez du inolako zerikusirik izango erabiltzaileak erakunde horretan dituen loginarekin eta erabiltzaile-izenarekin, phishing kasurik gerta dadin galarazteko.

Login horrez gain, beste login-mota bat dago, **ifk, earkunde sustatzailearen kodea, pasahitz bat** eta beste parametro batzuk jasotzen dituen. Segida-diagrama honetan, autentifikazio-prozesua deskribatzen da, bai eta prozesu horren bidez lortzen den saio-txartelaren erabilera ere:



4.2 Fakturen identifikazioa

Nabarmendu behar da, zerbitzu guztietan, kontsulta bat egin, egoera eguneratu edo fakturak beheara kargatu nahi baditugu, hau adierazi behar dela faktura bat identifikatzeko:

- **guidDefinitivo** (edo fakturaren behin betiko zenbakia) eta **CIFProveedor**
- **Id eta TypeId**

Izan ere, eFaktura Sistemak fakturak zenbakitzeko, serie-zenbaki bat (faktura-motaren arabera) eta faktura-zenbaki korrelatiboak erabiltzen dira hornitzaile bakoitzeko. Hortaz, hornitzaile beraren kasuan, ezin da egon serie-zenbaki bereko eta faktura-zenbaki bereko faktura bat baino gehiago.

Bigarren aukera informazioa eskatzeko eta bidaltzeko baliagarria da, eta horretarako, identifikatzailea (Id) eta horren tipologia adierazi behar dira. Ildo horretan, typeId-k zer identifikatzaile-mota erabiltzen den zehazten du: ID_FISCAL, ID_INTERNO, ID_EXTERNO.


Aurrekoari jarraituz, faktura bat identifikatu nahi badugu, atalaren hasieran aipatutako bi datuak eman behar ditugu (guidDefinitivo –edo serie-zenbakia– eta CIFProveedor).

Fakturak identifikatzeko erabiliko diren kodeei (guidDefinitivo) dagokienez, garrantzitsutzat jotzen dugu xehetasun hauek egitea:

- Faktura bat **sendFile** zerbitzuaren bidez inportatzerakoan, faktura horrek ERPan duen kodea (idFacturaERP) adierazi beharko da XMLko Invoice/GUID eremuan, eta UBL1.0 formatuan.

- Faktura bat inportatutakoan (*sendFile* zerbitzuaren bidez), dei egin beharko zaio **getDefinitiveGUIDs** zerbitzuari, igorri ondoren fakturari esleitutako identifikatzailea lortzeko (**guidDefinitivo**, serie-zenbaki batez eta kode batez osatua). Hornitzaile berak ezin du izan serie eta kode bereko faktura bat baino gehiago, eta beraz, datu horiek (serie-zenbakia eta faktura-kodea, gehi hornitzailearen IFK) erabiliko dira gainerako zerbitzuetan fakturak atzitzeko. *guidDefinitivo* horiek dira zerbitzuei eman beharrekoak, *guidDefinitivo* parametroan.

Diagrama honetan, faktura bat bidaltzeko, haren GUIDdefinitivo berreskuratzeko eta hari buruzko eragiketa bat egiteko prozesua ageri da:



4.3 Web-zerbitzuek itzultzen dituzten objektuak

Plataformaren v2.1 bertsioaren aurreko bertsioetan, eFakturaren web-zerbitzuek itzultzen zituzten objektu guztiak *Bean* objektuak ziren; hau da, datuak eta datu horiek atzitzeko metodoak zituzten, eta hortaz, itzulitako informazioa argi eta garbi zehaztuta zegoen.

v2.1 bertsiotik aurrera, eFacturaXMLWS zerbitzu berria sortu da, eta haren bidez, XML erabiltzen da ERPetarako funtzionalitateak atzitzeko, *Bean* objektuak erabili beharrean. Eskiera horiei erantzuteko, eFacturaWS zerbitzuan erabiltzen den negozio-logika bera erabiltzen da; kontsultak egiteko eta zerbitzuaren erantzunak tratatzeko modua soilik aldatzen da.

4.3.1 eFacturaWS - java zerbitzuak itzultzen dituen objektuak

Web-zerbitzuak itzultzen duen objektuak hiru metodo ditu beti (*getError*, *getSubCode* eta *getMessage*), **zerbitzuari egindako deiaren emaitza** itzultzeko, eta dei horretan gertatu diren erroreei buruzko informazioa emateko. **getError** metodoaren bidez, eskatutako eragiketa ondo amaitu den ala ez jakin daiteke. Errorerik gertatu bada, **getSubCode** metodoak errore-motarekin lotutako kode bat emango du, eta **getMessage** metodoaren bidez, errorearen arrazoiaren testuzko azalpen bat lor daiteke.

Horrez gain, eskatutako **eragiketaren emaitzari buruzko informazioa osagarria** ere izan dezake zerbitzuak itzulitako objektuak.


Web-zerbitzuek itzultzen dituzten kodeak aldeztatik zehaztuta daude, eta horri esker, dei egiten duten aplikazioek erabaki dezakete zer-nolako portaera izan behar duten.

Emaitza-objektuak **Bean sinpleak** izan daitezke (zerbitzuari egindako deiaren emaitzari buruzko informazioa lortzeko hiru metodoak, eta datuak atzitzeko metodoak), edo **BeanSet** objektuak (zerbitzuari egindako deiaren emaitzari buruzko informazioa lortzeko hiru metodoak, eta eskatutako informazioa duten *Bean* objektuen bektore bat itzuliko duen metodo bat). Kontuan izan **web-zerbitzuak zuzenean itzulitako objektuak soilik izango duela deiaren emaitzari buruzko informazioa**; alegia, objektuak Bean objektuen bektore bat badu, objektu horiek zerbitzuak emandako informazioa baino ez dute izango.

4.3.2 eFacturaWSNet - <XML>zerbitzuak itzultzen dituen objektuak

Zerbitzu horrek itzultzen dituen objektuak bi motatakoak izan daitezke:

1. XML formatuko java.lang.String bat. Besteak beste, deiaren amaierari buruzko informazioa emango duen bean adar bat izango du:



- error: deian errorerik gertatu ote den adieraziko digu, eta false edo true balioak izan ditzake.
 - subCode: zenbakizko balioak izan ditzake eta, errorerik gertatuz gero, errore-motarekin lotutako kode bat ere izango du.
 - message: kate-balioak izando ditu eta, errorerik gertatuz gero, errorearen arrazoiari buruzko testuzko azalpena izango du.
2. javax.activation.DataHandler: fitxategi bat izango du, baina, errorerik gertatu bada, salbuespen bat azalduko da, errorea deskribatzeko mezu bat emateko, zer errore-mota izan den jakiten bada.

5 eFacturaWS - java web-zerbitzua

5.1.1 Deskribapena

Orain, eFacturaWS web-zerbitzuak ematen dituen zerbitzuen deskribapen xehatua emango dugu.

Hau adierazten da metodo bakoitzari buruz:

1. Metodoaren deskribapen funtzional bat.
2. Haren sarrera-parametroak (parametroen mota eta izena), metodoaren adierazpenean duten ordena berean deskribatuak. Haien deskribapen funtzionala ematen da, bai eta, balio mugatuak badituzte, balio horien zerrenda bat ere.
3. Irteera-parametroak, zer motatakoak diren adieraziz eta haien funtzionalitatea deskribatuz. Objektu horiei buruzko informazioa dagokion Javadoc dokumentuan osatzen da.

Amaiera-kode posibleak, 4.3. atalean metodo horretarako deskribatzen diren eremuek izan ditzaketen balioak adieraziz.

5.1.2 Zehaztutako metodoak

Jarraian, web-zerbitzuaren zati diren metodoak zehatz-mehatz deskribatuko ditugu. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu *javadoc* dokumentua.

5.2 Login

5.2.1 Deskribapena

Atxikitako erakunde batek WS-API ERPren bidez plataformaren zerbitzuak erabili nahi baditu, metodo horrek eFaktura Sisteman identifikatzen eta autentifikatzen du erakunde hori.

Metodo horri esker, atxikitako erakundeek saio-txartel baliagarria lor dezakete, ondorengo deietan denbora mugatu batez erabiltzeko. Horretarako, erabiltzaileak erakunde sustatzaileari web-moduluaren bidez emandako pasahitza sartu beharra dago.

eFacturaWS web-zerbitzuaren autentifikazioko eta atzipen-kontrolako mekanismoari buruzko informazio xeheagoa nahi izanez gero, ikus 4.1. Autentifikazioa eta atzipen-kontrola.

Erabiltzailea logeatuta badago (esaterako, aurreago beste login eskaera bat egin duelako), login berriak ez du aurretiko txartela baliogabetuko, eta beraz, erabiltzaileak aurreko saioa erabiltzen jarraitu ahal izango du.

5.2.2 Sarrera-parametroak

Parametroa	Derrigorrezkoa (B/E)	Deskribapena
userCIF	S	Atxikitako erakundearen identifikatzaileari (IFK, AIZ, IFZ...) dagokion testu-kate bat duen java.lang.String bat.
codPromEntity	S	Pasahitza eman zitzean erakunde sustatzailearen kodeari dagokion testu-kate bat duen java.lang.String bat.
Pasahitza	S	Erakunde sustatzaileari emandako pasahitzari dagokion testu-kate bat duen java.lang.String bat.

5.2.3 Irteera-parametroak

Parametroa	Deskribapena
<i>LoginBean</i>	Besteak beste, hurrengo eskaerarako txartel baliagarri bat du, baina, kasu horretan, giltza zifratuak null balioa du. Gainera, web-zerbitzuari egindako deiaaren emaitzari buruzko informazioa izango du; hau da, eragiketa arrakastaz burutu den ala errorerik gertatu den adieraziko du, eta errorerik gertatu bada, mezu batean azalduko da zer errore-mota izan den.

5.2.4 Amaiera-kode posibleak

Eragiketa zuzen burutuz gero, zerbitzuak itzultitako objektuaren *error* eremua *false* izango da (objektu horren *getError* metodoaren bidez kontsulta daiteke). Eragiketa ez bada behar bezala burutu, errore-mezu hauek hartzen dira aintzat eragiketa horretarako:

AMAIERA-KODEA	DESKRIBAPENA
WS_ERROR_001	Ezin da zerbitzuarekin komunikatu, edo zerbitzuak ez du erantzuten.
WS_ERROR_002	Barne-errorea gertatu da eskatutako eragiketa egitean.
WS_ERROR_006	Emandako logina ez da zuzena.

5.2.5 Liburutegiaren zehaztapena

Gainerako metodoetan bezala, JAVA liburutegiak zenbait abantaila ditu erabiltzailearentzat, web-zerbitzuen eragiketaren zuzeneko erabilerari dagokionez.

Atxikitako erakundea eFactura Sistemari identifikatu eta autentifikatzeaz gain, metodo horrek barnean gordetzen du txartela; horrenbestez, gainerako funtzioek

erabil dezakete, erabiltzaileak eskaera bakoitzean txartela erabili beharrik gabe. Hori dela eta, funtzio honek hau ere behar du: WS-API ERParen web-zerbitzuekin konektatzeko url-a adieraztea sarrera-parametro gisa.

5.3 Logout

5.3.1 Deskribapena

Metodo horren bitartez, eFaktura Sistema deskonektatzen da.

5.3.2 Sarrera-parametroak

Parametroa	Derrigorrezkoa (B/E)	Deskribapena
ticket	S	XML formatuko kate bat duen java.lang.String bat.

5.3.3 Irteera-parametroak

Parametroa	Deskribapena
LogoutBean	Bezeroari erantzuna bidaltzen dion LogoutBean objektua.

5.3.4 Amaiera-kode posibleak

Eragiketa zuzen burutuz gero, zerbitzuak itzultitako objektuaren *error eremua false* izango da (objektu horren *getError* metodoaren bidez kontsulta daiteke). Eragiketa ez bada behar bezala burutu, errore-mezu hauek hartzen dira aintzat eragiketa horretarako:

AMAIERA-KODEA	LITERAL DESKRIBATZAILEA
WS_ERROR_001	Ezin da zerbitzuarekin komunikatu, edo zerbitzuak ez du erantzuten.
WS_ERROR_002	Barne-errorea gertatu da eskatutako eragiketa egitean.

5.3.5 Liburutegiaren zehaztapena

Gainerako metodoetan bezala, emandako JAVA liburutegiak hau ere ematen du, eta zenbait abantaila ditu erabiltzailearentzat, web-zerbitzuen eragiketaren zuzeneko erabilerari dagokionez.

Atxikitako erakundea eFaktura Sisteman identifikatu eta autentifikatzeaz gain, metodo horrek barnean gordetzen du txartela; horrenbestez, gainerako funtzioek erabil dezakete, erabiltzaileak eskaera bakoitzean txartela erabili beharrik gabe.

Hori dela eta, funtzio honek hau ere behar du: WS-API ERParen web-zerbitzuekin konektatzeko url-a adieraztea sarrera-parametro gisa.

5.4 sendInvoices

5.4.1 Deskribapena

Zerbitzu honen bidez, FACTURAE32, formatuko faktura bat inporta daiteke XML fitxategi batean, edo zenbait formatutako faktura batzuk zip fitxategi batean. *SendFileBeanSet* objektu bat itzultzen du (inportatutako fakturei eta inportazioaren egoerari buruzko informazioa ematen du objektu horrek). Aldez aurretik zehaztuta dago faktura zer egoeratan gera daitekeen inportatu ondoren; hortaz, informazio horretan oinarrituta, aplikazioak nola jokatu erabaki dezake.

Sistemak automatikoki igorriko ditu metodo honen bidez sartutako fakturak, eta serie-zenbakia eta faktura-zenbakia esleituko dizkie (baldin eta fakturen formatuan edo igortzeko prozesuan errorerik ez badago).

5.4.2 Sarrera-parametroak

- java.lang.String ticket: Saio-txartel baliagarria.
- javax.activation.DataHandler ficheroEntrada: inportatu beharreko fakturen fitxategia duen DataHandler-a.
- java.lang.String tipoFactura: eFakturara inportatu nahi den faktura-mota
Balio hauek izan ditzake: "380" fakturetarako, "389" autofakturetarako, edo "384" zuzenketa-fakturetarako. Balio horiek guztiak konstanteen fitxategian daude katalogatuta (*WS_INVOICE_TYPE_FACTURA*, *WS_INVOICE_TYPE_AUTOFACTURA*, *WS_INVOICE_TYPE_FACTURA_RECTIFICATIVA*, *WS_INVOICE_TYPE_AUTOFACTURA_RECTIFICATIVA*). Zuzenketa-fakturen kasuan, "384" balioa adierazi behar da beti, eta sistemak hautematen du faktura edo autofaktura den, zuzendu behar den fakturaren kodearen arabera. Eremu horren balioak **ez** dira aztertzen (faktura-mota fakturarik hartzen da zuzenean); hau soilik hartzen da kontuan: 1etik gorakoa bada, faktura ez da faktura, eta 4tik gorakoa bada, ez da autofaktura. Edonola ere, gomendatzen da hori bezalako zehaztapen bat izatea, bai eta balio horiek baliozkotzat hartzea egokia den aztertzea ere.
- java.lang.String formato: Fakturak sisteman sartzeko formatua. Balio hauek baino ez dira onartzen: "FACTURAE32" (konstanteen fitxategian katalogatuta daude).

IDENTIFIKATZAI LEA	LITERALA
-------------------------------	-----------------

CM10	CM10
FACTURAE30	FACTURAE 3.0
FACTURAE31	FACTURAE 3.1
FACTURAE32	FACTURAE 3.2
JABEA	Formatu itxia
UBL10	UBL 1.0

Formatu horiek formatuen taulan daude konfiguratuta.

5.4.3 Irteera-parametroak

SendFileBeanSet objektu bat itzultzen du, web-zerbitzuari egindako deiaren emaitzari buruzko informazioarekin, eta *SendFileBean* objektuen bektore bat, inportatutako faktura bakoitzaren inportazio-emaitzari buruzko informazioarekin. Objektu horri eta haren atalei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Javadoc.

Kasu jakin honetan, honako hauek bereizi behar dira: zerbitzuari egindako deiaren emaitza (Bean motatik jasotako metodoetan oinarrituta lortua, eta hurrengo puntuan deskribatutako balioak izan ditzakeena) eta bidalitako zip fitxategiko faktura bakoitzaren inportazioaren emaitza (zerbitzuak itzultitako *SendFileBean* objektu bakoitzean deskribatua).

5.4.4 Amaiera-kode posibleak

Eragiketa zuzen burutuz gero, zerbitzuak itzultitako objektuaren *error* eremua *false* izango da (objektu horren *getError* metodoaren bidez kontsulta daiteke). Eragiketa ez bada behar bezala burutu, errore-mezu hauek hartzen dira aintzat eragiketa horretarako:

AMAIERA-KODEA	LITERAL DESKRIBATZAILEA
WS_ERROR_001	Ezin da zerbitzuarekin komunikatu, edo zerbitzuak ez du erantzuten.
WS_ERROR_002	Barne-errorea gertatu da eskatutako eragiketa egitean.
WS_ERROR_003	Txartela ez da zuzena
WS_ERROR_007	Deiaren parametroak ez dira zuzenak.
WS_ERROR_012	Eskatutako seriedun edo faktura-zenbakidun fakturak badira lehendik.
WS_ERROR_014	Fakturaren seriearen eta zenbakiaren arteko bereizlea konfiguratuta behar duzu.
WS_ERROR_017	Errorea serie-aurrezenbakiarekin. 1-4 karaktere alfanumeriko izan behar ditu.
WS_ERROR_018	Errorea, aurrezenbakia ez baitago dagokion delegazioarekin lotuta.

WS_ERROR_019	Errorea serie-aurrezenbakiarekin.
--------------	-----------------------------------

5.5 getInvoicesData

5.5.1 Deskribapena

Zerbitzu honen bidez sistemak igorritako fakturak behera kargatu daitezke. GUIDdefinitivo bidez eskatutako fakturak zip fitxategi baten lortzeko aukera ematen du.

5.5.2 Sarrera-parametroak

- java.lang.String ticket: Saio-txartel baliagarria.
- java.lang.String [] guidsDefinitivos: Behera kargatu nahi diren fakturen identifikatzaile unibertuala (*getDefinitiveGUIDs* bidez lortua).
- java.lang.String [] CIFsProveedor: Behera kargatu nahi diren fakturen hornitzailearen IFK. Bektore honetan, sarrera bat sortu behar da aurreko parametroan adierazitako *guidDefinitivos* bakoitzerako.
- java.lang.String formato: Adierazitako fakturak behera kargatzeko formatua. Balio hauek onartzen dira (konstanteen fitxategian katalogatuta daude):

IDENTIFIKATZAIL	LITERALA
EA	
CM10	CM10
KOPIA	Jatorrizkoaren kopia, sinadura digitalarekin.
PDF	PDF fitxategi BAT baino ez.
JABEA	Formatu itxia
UBL10	UBL 1.0
FACTURAE30	FACTURAE 3.0
FACTURAE31	FACTURAE 3.1
FACTURAE32	FACTURAE 3.2

Formatu horiek formatuen taulatik hartu dira.

5.5.3 Irteera-parametroak

DataHandlerBean objektu bat itzultzen du, zerbitzuari egindako deiaaren emaitzari buruzko informazioarekin, eta *DataHandler* objektu bat; horretan, zip fitxategi batean, GUIDdefinitivo bidez eskatzen diren fakturen formatuko XMLak daude. Objektu horri eta haren atalei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Javadoc.

5.5.4 Amaiera-kode posibleak

Eragiketa zuzen burutuz gero, zerbitzuak itzultitako objektuaren *error* eremua *false* izango da (objektu horren *getError* metodoaren bidez kontsulta daiteke). Eragiketa

ez bada behar bezala burutu, errore-mezu hauek hartzen dira aintzat eragiketa horretarako:

AMAIERA-KODEA	LITERAL DESKRIBATZAILEA
WS_ERROR_001	Ezin da zerbitzuarekin komunikatu, edo zerbitzuak ez du erantzuten.
WS_ERROR_002	Barne-errorea gertatu da eskatutako eragiketa egitean.
WS_ERROR_003	Txartela ez da zuzena
WS_ERROR_004	Eskatutako GUIDak ezin dira sartu, edo GUID horiek ez dira existitzen.
WS_ERROR_007	Deiaren parametroak ez dira zuzenak.

5.6 addAttachment

5.6.1 Deskribapena

Sisteman dagoen faktura bati fitxategi bat eransteko aukera ematen duen zerbitzua. Fitxategiak faktura batekin lotzeko erabil daiteke, bai fitxategien bidez faktura horren edukia argitzeko, bai edozein arrazoiengatik faktura horrekin lotzea eta eskuragarriak egotea interesgarria delako. Nahi adina fitxategi lotu daitezke faktura batekin, baina faktura bati erantsitako fitxategien tamaina, ordea, mugatuta dago (512 k).

5.6.2 Sarrera-parametroak

- `java.lang.String ticket`: Saio-txartel baliagarria.
- `java.lang.String guidDefinitivo`: Erantsi nahi den fitxategia izango duen fakturaren identifikatzaile unibertsala (`getDefinitiveGUIDs` metodoaren bidez lortua).
- `javax.activation.DataHandler ficheroEntrada`: Erantsi nahi den fitxategia duen `DataHandler` objektua.
- `java.lang.String descripcion`: Erantsitako fitxategiaren deskribapena.
- `java.lang.String nombreFichero`: Eransten den fitxategiaren izena.
- `java.lang.String CIFProveedor`: Kontsultatu nahi diren fakturen hornitzailearen IFK.

5.6.3 Irteera-parametroak

`AddAttachmentBean` objektu bat, web-zerbitzuari egindako deiaren emaitzari eta erantsitako fitxategia sartzearen emaitzari buruzko informazioa duena. Objektu horri eta haren atalei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Javadoc.

5.6.4 Amaiera-kode posibleak

Eragiketa zuzen burutuz gero, zerbitzuak itzultitako objektuaren *error* eremua *false* izango da (objektu horren *getError* metodoaren bidez kontsulta daiteke). Eragiketa ez bada behar bezala burutu, errore-mezu hauek hartzen dira aintzat eragiketa horretarako:

AMAIERA-KODEA	LITERAL DESKRIBATZAILEA
WS_ERROR_001	Ezin da zerbitzuarekin komunikatu, edo zerbitzuak ez du erantzuten.
WS_ERROR_002	Barne-errorea gertatu da eskatutako eragiketa egitean.
WS_ERROR_003	Txartela ez da zuzena
WS_ERROR_004	Eskatutako GUIDak ezin dira sartu, edo GUID horiek ez dira existitzen.
WS_ERROR_007	Deiaren parametroak ez dira zuzenak.
WS_ERROR_010	Ezin izan da fakturaren identifikatzailea lortu.
WS_ERROR_025	Errorea. Zaintzako faktura bati fitxategia eranstean saiatu da.

Web-zerbitzuari egindako deiaren emaitzari buruzko informazio orokorraz gain, metodo honen bidez itzultitako objektuak bi eremu ditu, eragiketaren emaitzari buruzko informazio espezifikoa itzultzeko (*errorOperativa*, *messageOperativa*). Baldin eta *errorOperativa true* da, fitxategia ez da erantsi, *messageOperativa* eremuan adierazitako errorea dela eta.

5.7 listAttachments

5.7.1 Deskribapena

Kontsulta-metodo bat da, eta zerrenda batean, faktura jakin bati erantsitako fitxategiei buruzko informazioa ematen du.

5.7.2 Sarrera-parametroak

- java.lang.String ticket: Saio-txartel baliagarria.
- java.lang.String guidDefinitivo: Erantsi nahi den fitxategia izango duen fakturaren identifikatzaile unibertsala (*getDefinitiveGUIDs* metodoaren bidez lortua).
- java.lang.String CIFProveedor: Kontsultatu nahi diren fakturen hornitzailearen IFK.

5.7.3 Irteera-parametroak

AttachmentFileBeanSet objektu bat, zerbitzuari egindako deiaren emaitzari buruzko informazioa duena, eta *AttachmentFileBean* objektuen bektore bat, hain zuzen, kontsultatutako fakturari erantsitako fitxategiei buruzko edukia duten objektuena. Objektu horri eta haren atalei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Javadoc.

5.7.4 Amaiera-kode posibleak

Eragiketa zuzen burutuz gero, zerbitzuak itzultitako objektuaren *error* eremua *false* izango da (objektu horren *getError* metodoaren bidez kontsulta daiteke). Eragiketa ez bada behar bezala burutu, errore-mezu hauek hartzen dira aintzat eragiketa horretarako:

AMAIERA-KODEA	LITERAL DESKRIBATZAILEA
WS_ERROR_001	Ezin da zerbitzuarekin komunikatu, edo zerbitzuak ez du erantzuten.
WS_ERROR_002	Barne-errorea gertatu da eskatutako eragiketa egitean.
WS_ERROR_003	Txartela ez da zuzena
WS_ERROR_004	Eskatutako GUIDak ezin dira sartu, edo GUID horiek ez dira existitzen.
WS_ERROR_007	Deiaren parametroak ez dira zuzenak.
WS_ERROR_010	Ezin izan da fakturaren identifikatzailea lortu.

5.8 downloadAttachment

5.8.1 Deskribapena

Erantsitako fitxategi bat behera kargatzeko aukera ematen duen metodoa. Zer fakturari dagokion eta erantsitako fitxategiaren zer zenbaki duen adierazi behar da.

5.8.2 Sarrera-parametroak

- `java.lang.String ticket`: Saio-txartel baliagarria.
- `java.lang.String guidDefinitivo`: Behera kargatu nahi den fitxategia duen fakturaren identifikatzaile unibertsala (*getDefinitiveGUIDs* metodoaren bidez lortua).

- `java.lang.Long idAdjunto`: Behera kargatu nahi den erantsitako fitxategiaren zenbakia.
- `java.lang.String CIFProveedor`: Kontsultatu nahi diren fakturen hornitzailearen IFK.

5.8.3 Irteera-parametroak

DataHandlerBean objektu bat, zerbitzuari egindako deiaren emaitzari buruzko informazioa duena, eta eskatutako erantsitako fitxategia. Objektu horri eta haren atalei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Javadoc.

5.8.4 Amaiera-kode posibleak

Eragiketa zuzen burutuz gero, zerbitzuak itzultitako objektuaren *error* eremua *false* izango da (objektu horren *getError* metodoaren bidez kontsulta daiteke). Eragiketa ez bada behar bezala burutu, errore-mezu hauek hartzen dira aintzat eragiketa horretarako:

AMAIERA-KODEA	LITERAL DESKRIBATZAILEA
WS_ERROR_001	Ezin da zerbitzuarekin komunikatu, edo zerbitzuak ez du erantzuten.
WS_ERROR_002	Barne-errorea gertatu da eskatutako eragiketa egitean.
WS_ERROR_003	Txartela ez da zuzena
WS_ERROR_004	Eskatutako GUIDak ezin dira sartu, edo GUID horiek ez dira existitzen.
WS_ERROR_007	Deiaren parametroak ez dira zuzenak.
WS_ERROR_010	Ezin izan da fakturaren identifikatzailea lortu.
WS_ERROR_011	Ezin izan da erantsitako fitxategiaren edukia lortu.

5.9 setComments

5.9.1 Deskribapena

Faktura bati ohar bat eransteko aukera ematen duen zerbitzua. Horretarako, fakturaren `guidDefinitivo` eta `cifProveedor` adierazi behar dira, baita ohar-mota eta oharraren testua ere.

5.9.2 Sarrera-parametroak

- `java.lang.String ticket`: Saio-txartel baliagarria.

- `java.lang.String guidDefinitivo`: Erantsi nahi den oharra izango duen fakturaren identifikatzaile unibertuala (`getDefinitiveGUIDs` metodoaren bidez lortua).
- `java.lang.String cifProveedor`: Erantsi nahi den oharra izango duen fakturaren hornitzailearen IFK.
- `java.lang.String commentType`: Ohar-motaren identifikatzailea. Balio hauetako bat izan behar du:
 - 1 ukatze-oharra (hartzaileak ezar dezake).
 - 2 Oharra (igorlearen ohar pertsonalak).
 - 3 Oharra (hartzailearen ohar pertsonalak).
 - 4 Oharra (igorleak ezar dezake).
- `java.lang.String comment`: Oharraren testua.

5.9.3 Irteera-parametroak

`CommentsBeanSet` objektu bat, web-zerbitzuari egindako deiaren emaitzari buruzko informazioarekin, eta txertatutako oharrari buruzko informazioa duten `CommentsBean` objektuen bektore bat. Objektu horri eta haren atalei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Javadoc.

5.9.4 Amaiera-kode posibleak

Eragiketa zuzen burutuz gero, zerbitzuak itzultitako objektuaren `error` eremua `false` izango da (objektu horren `getError` metodoaren bidez kontsulta daiteke). Eragiketa ez bada behar bezala burutu, errore-mezu hauek hartzen dira aintzat eragiketa horretarako:

AMAIERA-KODEA	LITERAL DESKRIBATZAILEA
WS_ERROR_001	Ezin da zerbitzuarekin komunikatu, edo zerbitzuak ez du erantzuten.
WS_ERROR_002	Barne-errorea gertatu da eskatutako eragiketa egitean.
WS_ERROR_003	Txartela ez da zuzena
WS_ERROR_004	Eskatutako GUIDak ezin dira sartu, edo GUID horiek ez dira existitzen.
WS_ERROR_007	Deiaren parametroak ez dira zuzenak.
WS_ERROR_015	Onartu gabeko ohar-mota.
WS_ERROR_010	Ezin izan da fakturaren identifikatzailea lortu.

5.10 setMetaData

5.10.1 Deskribapena

Eragiketa honek dokumentu bati informazio osagarria (metadatu) lotzeko aukera ematen du. Plataforman gordetzen da informazio hori, gerora kontsultatzeko edo aldatzeko.

Gordetako informazioak bi atal ditu: gakoa eta balioa. Gakoa informazio osagarriaren mota identifikatzeko erabiltzen da; esate baterako: "Fecha Registro". Balioa, berriz, informazio osagarria da; adibidez: "28-03-2010".

Baldin eta, lehendik lotutako metadatu bat dokumentu bati lotzean, gako bereko metadatu badago –hau da, dokumentu horrek gako berari lotutako informazioa badu–, balioa ordezkatu egingo da.

Gordetako informazioak muga hauek izango ditu:

- 20 byte (alfanumerikoak), gakoarentzat.
- 100 byte (alfanumerikoak), balioarentzat.

Bi kasuetan, karaktere arraroak debekatuta daude. ? ¿ ! ¡ j []... eta ez da gomendatzen tildeak eta abar erabiltzea.

5.10.2 Sarrera-parametroak

Parametroa	Derrigorrezkoa (B/E)	Deskribapena
ticket	S	java.lang.String: eragiketa baimentzen duen saio-txartel baliagarria.
keyData	S	java.lang.String: informazio osagarriaren izena. Ondoren balioa berreskuratzeko gako gisa erabiliko da.
valueData	S	java.lang.String. keyDataarekin lotutako informazio osagarriaren balioa.
typeld	S	java.lang.String: Faktura edo fakturak kokatzeko erabilitako identifikatzaile-moten kategorizazioa (ikus balio posibleak A eranskinean).
ids	S	java.util.List: Dokumentuen identifikatzaileen zerrenda. Identifikatzaileen balioa typeld-ekin lotuta egongo da.
sellerCIF	B	java.lang.String: Hornitzailearen IFKren balioa, typeld eremuan ID_FISCAL zehaztu bada faktura bat identifikatzeko beharrezkoa.

5.10.3 Irteera-parametroak

Parametroa	Deskribapena
<i>IdInvoiceBeanSet</i>	Web-zerbitzuari egindako deiaaren emaitzari buruzko informazioa duen objektu bat, eta txertaketarekin lotutako fakturei buruzko informazioa duten IdInvoiceBean objektuen bektore bat. Objektu horri eta haren

	atalei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Javadoc.
--	---

5.10.4 Amaiera-kode posibleak

Eragiketa zuzen burutuz gero, zerbitzuak itzulitako objektuaren *error* eremua *false* izango da (objektu horren *getError* metodoaren bidez kontsulta daiteke). Eragiketa ez bada behar bezala burutu, errore-mezu hauek hartzen dira aintzat eragiketa horretarako:

AMAIERA-KODEA	LITERAL DESKRIBATZAILEA
WS_ERROR_001	Ezin da zerbitzuarekin komunikatu, edo zerbitzuak ez du erantzuten.
WS_ERROR_002	Barne-errorea gertatu da eskatutako eragiketa egitean.
WS_ERROR_003	Txartela ez da zuzena
WS_ERROR_023	... IFK duen erabiltzaile bat legez kontra sartzen saiatu da.
WS_ERROR_028	Errorea. Eskatutako identifikatzaile-mota ez da existitzen.

5.11 getMetaData

5.11.1 Deskribapena

Eragiketa honek aukera ematen du dokumentu batekin lotutako informazio osagarriaren (metadaturak) balioa lortzeko.

Baldin eta dokumentuak ez badu zehaztutako gakoari dagokion informazio osagarriarik, eragiketak ez du ezer itzuliko.

5.11.2 Sarrera-parametroak

Parametroa	Derrigorrezkoa (B/E)	Deskribapena
ticket	S	java.lang.String: eragiketa baimentzen duen saio-txartel baliagarria.
keyData	S	java.lang.String: informazio osagarriaren izena. Ondoren balioa berreskuratzeko gako gisa erabiliko da.
typeld	S	java.lang.String: Faktura edo fakturak kokatzeko erabilitako identifikatzaile-moten kategorizazioa (ikus balio posibleak A eranskinean).
Ids	S	java.util.List: Dokumentuen identifikatzaileen zerrenda. Identifikatzaileen balioa typeld-ekin lotuta egongo da.

